

Lidia Gilabert Beltran

Villanueva i La Geltrú

Arte eszenikoen sorkuntza zentroak. Zentro publikoen helburuak eta lehentasunak.

Ikuspuntu teoriko huts eta, seguru asko, oso idealista batetik hitz egingo dut sorkuntza zentroeiei buruz, artistei laguntzeko eredu baten aukera guztiak aintzat harturik. Hala ere, hemen, eredu hori garatzeke dago.

Azken bi urteetan, Generalitateko Departament de Cultura i Mitjans de Comunicació delakoak arte eszenikoetarako bi sorkuntza zentro sustatzea erabaki du, dagozkien udalekin hitzartuta: Centre de Creació d'Arts Escèniques 'Circ i Dansa', Roca Umbert-Fàbrica de les Arts-en (Granollers); eta La Vela, Centre de Residència i Creació de Circ (Vilanova i la Geltrú).

Roca Umbert ehungintzan aritzen zen lantegi zaharra da, 20.000 m²-koa, eta Granollerseko (barrualdeko hiria, Bartzelonatik 40 km ingurura dagoena) Udala kultur ekipamendu gisa erabiltzeko berreskuratzen ari da. Besteak beste, honako gune hauek daude: liburutegia, teknologia eta unibertsitate zentro bat, kultura herrikoi eta tradizionalako zentro bat, musikarientzako entsegu lokalak, ikusizko eta multimediako artistentzako plato bat, eta erakusketa gela bat. Arte Eszenikoen Sorkuntza Zentroa zirkuan eta dantzan espezializatuta egongo da. Horretarako, bi nabe erabiliko dira. Nabe horiek zaharberritzeko, bi urteko lanak beharko dira, gutxi gorabehera. Gainera, lantegi zahar horretan, plaza ireki bat dago, karpak eta beste egitura desmuntagarri batzuk instalatzeko.

La Vela (*vela* hitzak *karpa* esan nahi du katalanez) 28 m-ko diametroko zirku karpa bat da. 2006tik, Vilanova i la Geltrúren (kostaldeko hiria, Bartzelona eta Tarragona

artean dagoena) kanpoaldean instalatuta dago, berdegune batetik eta industrialde batetik hurbil. Oinarrizko zerbitzuez eta biltegirako guneaz gain, karabana batean bizitzeko aukera ematen du, egonaldiak irauten duen bitartean. La Velatik 20 konpainiatik gora igaro dira, baina baliabide ekonomikorik eza eta kudeaketa talde minimo bat direla eta, estu eta larri egin du aurrera orain arte. Generalitataren eta Udalaren arteko hitzarmenak La Velako proiektuak 2008. urtearen amaieran irmotasunez abiatzea eragin beharko luke.

Oraingoz, Katalunian, sorkuntza guneak ekimen pribatuen ondorioz eratu dira; hala nola, konpainiek, artisten kolektiboek eta elkarteek bultzatuta. Lehen aldiz, titulartasun publikoko zentro bat sortzea pentsatu da, eta kultur eta hedabideen sailak kanpo talde bati egin zigun eredu posible bat proposatzeko enkargua, batik batik filosofia eta eduki mailan.

Roca Umberterako, Clara Matasek eta biok zirkua eta dantza uztartuko lituzkeen zentro baten aurreproiektu bat egin genuen. Eta La Velarako, Pere Milanekin batera, kudeaketarako, jardueretarako eta ekipamenduak hobetzeko proposamen zehatzagoa egin genuen.

Elkarrizketak izan genituen sektore bakoitzeko profesionalekin, eta nazioarteko 14 sorkuntza zentro bisitatu, eta horretan oinarrituta, ekipamendu horiek beharrezkoak direla sinetsita egoteaz gain, **zentro publiko batek** gure ustez **zer helburu eta zer lehentasun** izan behar dituen zehaztu genuen.

- **Sektoreari dagokionez:**

1. **Konpainien bizitza profesionala iraunaraztea.**
2. **Ekoizpenen kalitatea handitzeko baliabideak ematea.**
3. **Artista belaunaldi berriei laguntza eta aukerak ematea.**

1. **Konpainien bizitza profesionala iraunaraztea.**

Uste dut honetan denok ados egongo garela: artistek beren lanari esker atera behar dute bizimodua, eta, horretarako, beharrezkoa da lan hori, nolabait, jarraitua izatea; hots, beharrezkoa da artistek ikuskizunak sortzeko eta ustiatzeko aukera izatea.

Nonbait, ikuskizunak sortzeko eta ekoizteko diru laguntzen sistemak zenbait proiekturi laguntzen die, baina ez ditu konpainiek behin eta berriz dituzten arazo batzuk konpontzen: enpresa egiturarik eza (konpainia gehienek ez dute ekoizlerik, eta, zerga mailan, askotan, konponbide irregularrei heldu behar diete); kontratu harremanen ezegonkortasuna; zenbait ekoizpenen biritza laburra, zirkuiturik ezaren ondorioz edo zirkuitu batean sartzeko zailtasuna dela medio; etab.

Artistek beren egunerokoa kudeatzeko eta bizimodua beren ekoizpenetatik ateratzeko baliabiderik izan ezean, ikusiko dugu konpainia berri asko sortu eta urte batera edo bira desagertzen direla, edo konpainia batzuek urteko ekoizpenaren trukean eta ez beren lanaren hedapenagatik jasotzen duten diru laguntzari esker irauten dutela.

Kalitatezko ikuskizunak egiten dituzten artistek eta konpainiek beren burua benetan aski izango badute, sorkuntza zentroek baliabide hauek eskaini behar dituzte:

- Denbora eta espazioa (doakoa edo kostu txikikoa), sorkuntza fase guztietarako: ikertzeko, sortzeko eta proba teknikoak egiteko. Batez ere, administrazioak berak metro koadroaren prezioa eskuraezina izatea onartu duen garai hauetan. Eta batik bat, zirkuaren kasuan, tamaina eta altuera handiko lokalak behar ditu eta.

- Laguntza artistikoa eta/edo logistikoa.

Zenbait tresna eman behar dira, arte trebetasunaz beraz gain beharrezkoak diren arlo guztietan profesionaltasunik ezari erantzuteko; esate baterako, ekoizpenean, diseinu teknikoan, jantzien eta eszenografiaren diseinuan, musikan, hedapenean eta komunikazioan dauden gabeziak konpontze aldera.

Hona hemen horrelako zentroen adibide pare bat: Artsadmin (Londres) eta Nil-Obstrat (Paris).

○ Harreman sarea.

Oso lotuta dago aurreko puntuarekin; izan ere, beharrezkoa da artistak eta sektoreko errealitate guztiak harremanetan egotea: prestakuntza, beste sorkuntza zentro batzuk (adibidez, Bartzelonako Udalak sustatu nahi duen zentro sare berria), antzezteko zirkuituak (esaterako, Europako Interreg eta Euroeskualdea programak), etab.

Zentro batek datu base ona izan beharko luke, herrialdeko eta nazioarteko datuz hornitua, eta datu base hori konpainia egoiliarren eskura jarri. Halaber, garrantzitsua da bertan egiten diren jarduera guztien berri ematea (adibidez, konpainia egoiliarren lanen laginak programatzaileei ematea).

Informazio korrante horiek sortzea ezinbestekoa da, baliabideak behar bezala aprobetxatuko badira.

2. Ekoizpenen kalitatea handitzeko baliabideak ematea.

Askotan, gure ekoizpenen kalitatea (zirkuan, kale antzerkian edo dantzan) ez da sortzaileek beraiek eta programatzaileek nahi luketena, batez ere beste herrialde batzuetako ekoizpenekin alderatuz gero. Seguru asko, zenbait kausa daude: baliabide ekonomiko eskasak, prestakuntza falta, lan ezegonkortasuna, profesionaltasun eskasa, arte sektoreen isolamendua, ikuskizunen bitzta laburra, etab.

Sorkuntza zentroek espazioa eta denbora izateko aukera ematen diete artistei, batik bat. Lana hobetzeko eta biribiltzeko denbora, baina baita ikertzeko, probatzeko, huts egiteko eta zuzentzeko, eta aurkikuntzak egiteko ere. Horrelako zentroetan, prozesuari eman dakioke garrantzia, eta ez soilik emaitzari.

Ekoizpenen kalitatea handitzeko, zentro batek baliabide hauek eskain ditzake, besteak beste:

- Denbora, lekua eta laguntza ekonomikoa, proiektu bakoitzaren beharren arabera.
- Laguntza artistikoa.
- Prestakuntza, sektorearen eta, bereziki, artista egoiliarren beharrak asetze aldera.
- Nazioarteko trukeak egiteko aukera.
- Diziplinen arteko trukeak egiteko aukerak.
- Publikoarekiko topaketak.
- Etab.

Hona hemen horrelako zentroen adibide pare bat: Les Subsistances (Lyon), Metal Culture (Londres).

3. Artista belaunaldi berriei laguntza eta aukerak ematea.

Artista eta konpainia guztiek izan behar dituzte zentro baten baliabideak eskura, edozein adin edo antzintasun dutela ere. Baina garrantzitsua da sortzaile berriei ere lekua ematea, munduaz duten ikuspegia garatzeko eta haren berri emateko prest daudenei, hasten direnen arrisku estetiko eta intelektuala aintzat hartuz.

Zirkuko artista eta dantzari gehienek atzerrian amaitzen dituzte ikasketak, eta itzultzea ez da batere erraza. Izan ere, onena izango litzateke zentro bakoitzeko zuzendaritza taldeak eskoletako lanaren berri izatea, ekoizpen berrietan sar daitezkeen artistak aurkitzea, lankidetzak proposatzea, etab.

Zentro batek, sorkuntza berriari laguntzeaz gain, bultzatu ere egin beharko luke sorkuntza. Horrez gain, leku berean belaunaldi desberdinetako artistak elkartzea erraztu beharko luke, ezagutzak truka ditzaten.

- **Publikoari eta lurraldeari dagokienez.**

Frantzian, *kultur bitartekotza* esaten diete publikoarekin harremanetan jartzeko jarduera guztiei. Jarduera horiek bi helburu dituzte:

- 1. Publiko berriak erakartzea.**

Katalunian, oraintxe bertan, askoren ahotan dago dantzako publikoaren krisia. Azken urteetan, diru laguntzak eman dira, dantza egonaldiak sortu dira antzokietan (17 egonaldi 2006an), Generalitatek komunikazio kanpainak egin ditu, eta, antzoki publikoetan, gutxieneko programazio kuotak eskatu dira. Hala ere, jende gutxi joaten da dantza ikuskizunetara.

Nabaria dirudi esatea edozein arte eszenikok esperientzia elkarbanatua izan behar duela, bestela ez baita artea. Dantzaren kasuan, behar-beharrezkoa da publikoarekin topatzeko modua bilatzea: sortzaileak autokritika egin dezan, eta interesa duten ikusleak sorkuntza lanez gozatzeko kode berriez ohar daitezten. Esaterako, *work in progress* aurkezpenen eta entsegu irekien bidez, publikoa sortze prozesuetan inplikatur, etab.

- 2. Artea gizarte kohesiorako eta kolektibo jakinekin (nerabeekin, hirugarren adinekoekin, urritasuna dutenekin, etab.) lan egiteko tresna gisa erabiltzea.**

Gaur egun, zirkuak eta kale arteek publikoaren konplizitatea dute. Gainera, zirkuaren eta kale arteen lanaren zati bat publikoarekiko interakzioan oinarrituta dago, bai printzipioz laugarren horma hausten delako edo ikuslearen zuzeneko partaidetza sustatzen delako.

Hurbiltasun horretaz baliatu behar dugu, publikoaren onerako, baita sorkuntza zentroaren gizarte ingurunearen onerako ere. Esate baterako, nerabeei lan saioak ikusteko aukera emanez, garrantzi handiko bizi informazioa ematen zaie: emaitza lortzeko, prozesua eta ahalegina beharrezkoak direla. Sortze prozesuak zalantzak eta okerrak ditu berekin, bai eta, batik bat, lan eskerga ere; alegia, gaur egungo *show business* delakoaren gizartean oso gutxi hedatutako balioak.

Kultur bitartekotzako programa garrantzitsuak dituzten zenbait zentro:

La Villette (Paris), CND - Centre National de la Danse (Pantin, Frantzia) eta UFA Fabrik (Berlin).

Laburbilduz, sorkuntza zentroek **dinamizazio gune** izan behar dute, ororen gainera, eta ahalik eta hobekien erabili behar dituzte beren baliabideak, **kalitatezko sorkuntza profesionala sustatzeko**. Aldi berean, **sare lanean** jardun behar dute lurraldeko eta nazioarteko **beste kultur ekipamendu batzuekin**. Horrez gain, ekipamendu publikoa diren aldetik, **ingurunean eragin positiboa** izan behar duen gune ere izan beharko lukete.

Sorkuntza zentro batek benetan funtzionatu eta profesionalen beharrei erantzungo badie, komeni da honako baldintza hauek bermatuta izatea:

- **Independentzia** ekonomikoa, artistikoa eta kudeaketakoa (erabakiak azkar hartzea bermatzen duen eredu juridiko batekin).
- **Zuzendaritza eta kudeaketa talde** eraginkorra eta malgua, sektorearekin harremanetan dagoena eta, unean uneko beharrak aintzat harturik, zer programa lehenetsi dakiena. Gainera, paternalista izan gabe baliabideak ematen jakin behar du, eta artistekin kontraprestazioak adosten, haien sortze prozesua errespetatuz.

- Benetako **konpromisoa**, zentroko arduradunen, artisten eta proiektuak jarraitzea ahalbidetu behar duten erakundeen aldetik (alegia, azken kasu horretan, epe luzeko emaitzetan sinesten duten administrazioen aldetik).

Lidia Gilabert Beltran
Manresa (Bartzelona), 1972

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Informazio Zientzietako –Kazetaritza-lizentziatua eta Bartzelonako Llotja-ko EAAOako ilustratzailea.
Kulturaren kudeaketan dihardu.

Gaur egun Pla Integral del Circ delakoa koordinatzen duen taldekoa da (Generalitateko Departament de Cultura i Mitjans de Comunicació sailak Kataluniako zirkuaren egoera normalizatzeko bere gain hartutako zenbait neurri, 2007 eta 2011 bitartean).

Sail berak aginduta, proiektu bat diseinatu du Pere Minalekin batera Centre de Residència i Creació La Vela finkatzeko (Vilanova i la Geltrú, 2007) eta, Clara Matasekin batera, aurreproiektu bat egin du Centre de Creació d'Arts Escèniques 'Circ i Dansa' de Roca Umbert-Fàbrica de les Arts delakoarentzat (Granollers, 2006). Gainera, katalogo hauek koordinatu ditu: *Carles Santos. Visca el piano!* (KRTU, 2006) eta *L'art del risc. Circ contemporani català* (KRTU, 2005), baita *El circ i la poètica del risc* mintegia ere (CCCB, 2006).

Sorkuntzaren edota ekoizpenaren arloan, *Shopping* (Clara Matas, 2004) zirku ikuskizuna zuzendu du beste batzuekin batera, baita *Transfusió* (Cia. Ipso Facto, 2000) kaleko animazioa ere. 1998 eta 2000 bitartean, Free Art ikuskizun agentziarako egin zuen lan.

ACTAR argitaletxean izan da (arkitekturan, diseinu grafikoan eta arte garaikidean espezializatua) argitaletxeko koordinatzaile eta komunikazioko arduradun, baita bere RAS liburudenda-galeriak antolaturiko jardueretan ere (2002-2004).

2005az gero, Kataluniako Zinemako Nazioarteko Sitgeseko Jaialdiko filmak koordinatzeko sailekoa da.